Bizkaia

Markina-Xemein

Erdigunea Casco urbano



ESPERANZA Y CÍA.

Esperanza y Cía arma-fabrika Markinan sortu zuten 1932an. Urte berean eraiki zuten, halaber, enpresarentzako eraikina, Kastor Uriarte arkitekto bizkaitarrak egindako proiektuaren arabera. Gaur egun, fabrika honetan Mondragon Unibertsitateko Polimero Eskola dago; garai bateko lantegiaren instalazioak berrerabili eta irakaskuntza-erabilera berrirako egokitu dituzte. Horri esker, eraikin bikain hau kontserbatu dute.

Mugimendu Modernoaren garaiko obra nabarmena da; halaber, Docomomo (Documentation and Conservation of buildings of the Modern Movement) fundazioak jaso du, euskal eraikinen artean esanguratsua delako (Bizkaikoetan, zehazki). Probintzia horretan estilo arrazionalistarekin egindako lehen obretako bat da, 1932an egina, eta Bizkaiko fabrika-eraikinen artean estilo horretan egindako arkitektura-adibide garbienetako bat da. Bulegoen fatxada nagusian eta zaintza-etxean ikuspegi arrazionalistaren erreferentziak oso ondo ikusten dira. Eraikinaren elementuek irudi orekatua eta egokia ematen laguntzen dute; hala nola, ertz oso txikiko teilatu-hegalak, estalki lauak, beiraztatutako eremu handiak, zuzenak eta oinarrizko kurbak, eta horizontaltasun orokorra nabarmentzen duen diseinu lineal hutseko barandadun begiratokia eta balkoi erdizirkularra. Monumentu izendatu dute 2012an.

En 1932 se crea en el municipio vizcaíno de Markina la fábrica de armas Esperanza y Cía. En el mismo año se levantó el edificio que albergaría la empresa, según proyecto del arquitecto vizcaíno Cástor de Uriarte. Hoy en día, en torno a esta fábrica se encuentra la Escuela de Polímeros de la Mondragon Unibertsitatea, que ha reaprovechado las instalaciones, adaptándolas a un nuevo uso, el docente, lo que ha permitido la conservación de este magnífico edificio.

Obra destacada del Movimiento Moderno, ha sido recogida por el Docomomo (Documentation and Conservation of buildings of the Modern Movement) como una pieza significativa del panorama constructivo vasco y, más concretamente, en el ámbito vizcaíno. Se trata de una de las primeras obras del racionalismo en Bizkaia, uno de los más claros ejemplos de arquitectura de este estilo existente entre los edificios fabriles del territorio, de una fecha tan temprana como 1932. Donde más claramente se aprecian las referencias a la visión racionalista es en los tratamientos de la fachada principal de las oficinas y en la garita de control. Aleros de pequeñísimo canto, cubiertas planas, grandes superficies acristaladas, dibujo de rectas y curvas elementales, mirador y balcón semicircular con barandilla de simple diseño lineal que remarca la horizontalidad general… todos ellos son elementos que contribuyen a una imagen equilibrada y proporcionada. Ha sido declarada monumento en 2012.